

Gogoz hasi dira defentsa pertsonala ikasten

2015/10/08

Urriaren 7an eman dio hasiera defentsa pertsonaleko ikastaroak HUHEZI Eskoriatzako fakultatean. ATAMA Kempo taldeko kideak izango dira irakasleak eta lehenengo egunetik gogoz hasi dira.

Helburua, bizitzan gerta daitezkeen egoera arriskutsuak saihesteko eta eraso posible baten aurrean defenditzeko baliabideak izatea da. Baita norbere auto-konfiantza eta auto-estimua indartzea ere.



MUko ikasleak eraso posible bati aurre egiteko baliabideak ikasten. Artxiboko irudia.